

HITZAURRE

Hogei-ta-hamar urtez Hegoaldeko gure herria bereziki zanpatuta egon ondoren, ez da harritzekoa aberriari eta politikari buruz gauza haundirik ez jakitea : ez-jakintasun hortara eramán nahi ginduen Franco'k ; eta lortu egin du. Gure herria ez-jakintasun horre errudun egitea, barkatu eta ulertu eziña izango litzake.

Gauza bat ez dute lortu, ordea : euskaldunok gure buruaz ahaztutzea. Hogei-ta-hamar urte huntan jo-ta-ke hau billatu ondoren, hor dago gure herriko gazteria : gero eta euskaltzaleago, gero eta abertzaleago, gero eta gogorrago. Euzkadi nolakoa nahi duen askotan jakin ez arren, gure herriak Euskal Herria'ren batasuna eta askatasuna nahi ditu. Inork, askotan (gehiegitan !) ezer ez azaldurik ere, gure gazteria Euzkadi'ren alde borrokatzen ari da. Atzerriari buruz, gure herriak EUZKADI ASKATUA nahi du.

Gauza bera gertatu da politikaren aldetik. Hegoaldeko Euskal Herriak hogei-ta-hamar urtez politika-girorik ezagutu ez arren, sasi-prentsak elikatua izan ondoren, alde guzietatik baztertua eta itsutua izanagatik, gure herriak gutxi gora-behera zer behar duen ongi somatu du ; eta Euzkadi'ko erresuma horren barrurako (eta gainera-koentzako) sozialismoa nahi du. Alegia : politikazko demokrazia ukatu gabe, osatu egin nahi du hain zuzen ekonomiazko demokrazia-ren bidez, kapitalismoa errotik erauziaz. Aberriari buruz gure herriak, hortara, EUZKADI SOZIALISTA nahi du.

Bi puntu hauek xuxen ikusi ditu ; eta gu geu ere helburu bikoitz hortan abiatu-rik gaitu irakurleak.

Baiña hortantxe dago gure arriskua. Hortantxe dago gure lana ere bai. „Euzkadi Askatua” eta „Euzkadi Sozialista” hitz horiek zer diran argitzen saiatu behar dugu. Bestela, hitz horietxek gure etsaiek erabilliaz, inora ez daramakiten bidetan barrena abia gintezke.

Ez litzake hau lehenengo aldiz gertatuko, zoritxarrez. España'ko karlistek ongi egin zuten jokoa joan dan mendean : „Fueros” hitzaz baliatu ziran gure herria Foruei datxikien askatasunaz eta demokrazia-z baztertze-ko.

España'ko sasi-ekertarrek gauza bera egin lezateke gaur „Euzkadi Sozialista” hitzak aipatu-z, eta zenbaki huntantxe agiri dan bezela, hasiak dira egiten.

Bestaldetik : hiru Internazional daude 1968-an (anarkistez gain) „sozialismo” hitza erabiltzen ari. Mao, Brexnef, Castro, Tito, Nenni, Mollet ... eta Nasser, Boumedién, Seku Ture ... danak dira „sozialista”. Noruega „sozialisten” eskuetan dago, eta Albania „sozialisten” eskuetan dago. Zertan dira antzeko Noruega eta Albania ?

Gure herria, hortara, berriz ere demagogia guzien JOSTAILLU izan ez dedin, argitu egin behar dugu ; eta argitu-nahi hortan sortu zan BRANKA. Arriskua hitz batzuen indarrean datza.

Argi-behar hortan, halere, ez dugu itsutu behar. Sozialista geran aldetik, eta sozialista geralako hain zuzen, kapitalismoaren bidega-beak eta zanpaketak gaitzesten ditugu. Kapitalismoaren kontra

gaude beti ; eta „gorrikeri”etatik eta „dogmakeri”etatik aldegin nahiz, ez dugu kapitalismoaren alde jokatu. Sozialisten arteko batasuna eziñezko ipuin bat baldin bada (eta errua ez da osoki II gn. Internazionaletik etorri...), kapitalismoaren izugarrikeriak hor daude, tinko, sendo, legeztaturik, bedeinkaturik...

Nola ez genuke, hortaz, Che Guevara'rekiko gure mirespena aitortuko ? Che Guevara'ren iritziak gureak ez izanik ere, Che Guevara'ren burruka-bideak gure herriarentzako desegokitzat izanik ere, nola ez genituzke guk, gure horrialde apaletatik, Che Guevara'ren lana eta jarraipide neurrigabea txalotuko ? Che Guevara'ren teoriak geureak ez izanik ere, eziña zaigu Hego-Ameriketako egoera latzaren kontra bere bizia eman duen gizon haundi hau ez goraiatzea.

Gauza bera esango dugu Régis Debray'ri buruz. Debray'k Bolivia'n zehatz zer egin duen jakin aurretik ere, ez dugu inolaz ere Debray kondenatuko ; Bolivia'ko „legetasuna” ezagutzen baitugu. Hain zuzen ere, lotsa-bide izan zaigu hauzi negargarri hortan euskal deitura gehiegi ikustea... „epaikari”en aldetik !

Gure bidea, hitz batez, zailla da. Euzkadi'rentzako zein sozialismomota nahi dugun xehetasunez aztertu behar dugu ; eta errazkeria eta nahaspilla guztietatik egin behar dugu iges. Sozialismoaren kondaira ezin zaigu ahaztu, eta komunismoarena ere ez. Hortan gogor gaude.

Baiña, hau dala-ta, anaitasunik haundienean aztertu behar ditugu sozialismoari buruzko gertaerak. Etsaien artean mailla batzuk egin ditugu ; eta gaur-gaurkoz gutxi merezi dute „etsai” izena. „Anti” joko batera erortzea barkatu eziña izango litzake. Che Guevara'ri eta Régis Debray'ri buruzko gure itzal guztizkoa aitortu dugu gaur ; eta bihotzez egin dugu.

Edozeren gainetik, zapal dutako **HERRI GUZIEN ALDE** baikaude.

BRANKA'K